

I. DOKUMENTUA. MEMORIA

I.1.	NERBIOIKO PARKE LINEALERAKO PLAN BEREZIAREN AURREKARIAK	2		
	I.2.	MAILAZ GORAGOKO PLANGINTZAREKIKO KOHERENTZIA	3	
		I.2.1.	lurralde-plangintzarekiko	3
		I.2.2.	udalerrien plangintza orokorrarekiko	7
		I.2.3.	Aiarako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Zatiko Planarekiko	7
I.3.	NERBIOIKO PARKE LINEALAREN ETA PLAN BEREZIAREN ESPARRUAK	12		
		I.3.1.	Nerbioiko Parke Linealaren esparruak	12
		I.3.2.	Plan Bereziaren esparruak	12
I.4.	NERBIOIKO PARKE LINEALAREN KONTZEPTUZKO IRIZPIDEAK	15		
		I.4.1.	Parke Lineala hirigintza hutsekoa baino ikuspegi zabalagotik hartzea	15
		I.4.2.	epeak behar bezala finkatzea	15
		I.4.3.	Administrazioaren arlokako jardunbidea gaintzea	17
		I.4.4.	Parke Linealaren ikusmoldea garapen iraunkorraren printzipioetan oinarritzea	18
		I.4.5.	Nerbioi ibaia eta Parke Lineala eguneroko erabilerarako sustatzea	19
		I.4.6.	Nerbioiko Parke Linealaren eta Plan Bereziaren ikusmolde malgua eta partaidetzazkoa izatea	19
		I.4.7.	Ekintzarako plana prestatzea	21
I.5.	NERBIOIKO PARKE LINEALERAKO PLAN BEREZIAREN HELBURUAK	22		
		I.5.1.	Nerbioi ibaiaren segurtasuna areagotzea	22
		I.5.2.	Hodi biltzailea eta dagozkion HUAk	23
		I.5.3.	Parkea bere osotasunean egituratuko duen bizikleta-pasealekua	24
		I.5.4.	Parke Linealari lotutako denetako espazioak sortzea	25
		I.5.5.	Interes historikoa duen ondare eraikiari balioa ematea	27
		I.5.6.	Pasabide-zortasunak gauzatzea	27
		I.5.7.	Lurzoru urbanizaezinean dauden erabilerak arautzea (OR-EA)	28
		I.5.8.	Industria-kokaleku jakin batzuen irudia eta apaindura hobetzea (OR-AP)	28
		I.5.9.	Tarte jakin batzuetan ibaiertzak lorategiz hornitzea edo landareberritzea (OR-LB)	28
		I.5.10.	Intereseko espazioak ingurumenaren aldetik babestea (OR-IN)	29
		I.5.11.	Ibaiertzetan kokatutako hiriguneak erakargarriago egitea	29

I.1. NERBIOIKO PARKE LINEALERAKO PLAN BEREZIAREN AURREKARIAK

Nerbioiko Parke Linealerako Plan Bereziaren dokumentu hau Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzaren eta Uren Zuzendaritzaren ekimenez egin da.

NERBIOIKO PARKE LINEALAREN ideia Laudioko plangintza orokorraren hurrenez hurreneko bertsioetan mamitu da eta, ondoren, Aiarako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Arloko Planean garatu eta zabaldu da. LZPan, eskualdea egituratzeko joera duen hiri inguruko eskalako parke gisa hartzen da elementu hori.

Nerbioiko Parke Linealaren esparruak Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetako tarteak biltzen ditu, Amurrio, Aiara, Laudio, Orozko, Arakaldo eta Arrankudiagako udal-mugapeak zeharkatzen ditu, eta Delika, Saratxo eta Luiaondoko administrazio-batzarrei eragiten die.

Jarduneko hirigintza-administrazioa Eusko Jaurlaritza da, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren bitartez dihardu.

Lehenago, Aiarako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Zatiko Planean zehaztuta dagoen Nerbioiko Parke Lineala Antolatzeko Aurretiazko Azterlanaren honako dokumentu hauek aurkeztu dira:

- 2003ko abendua: Informazio grafikoaren aurretiazko dokumentua.
- 2004ko otsaila: Informazioa aztertu eta diagnostikatzeko dokumentua.
- 2004ko maiatza: Lurralde-antolamenduaren lehen aurrerapena.
- 2004ko urria: Lurralde-antolamendurako hautabideen aurrerapena.
- 2004ko abendua: Plan Bereziaren aurrerapena.

Lurralde-antolamendurako hautabideak aztertzeke fasean, osagarri gisa eta irakurketa bateratuaz, parkearen esparru osoan zehar jarduteko proposamenak bildu ziren, Parke Linealerako proposamenen multzoko lehen ikuspegi izateko. Ikuspegi estrategiko hori Plan Berezi honen dokumentazio grafikoari eta idatzizkoari gaineratu zaio. Dokumentazio horretan, jakina, hirigintzaren eta lurraldearen inguruko hizkuntza erabiltzen da batik bat.

Lanen hasieratik, dokumentu hau prestatzeko laguntzaile-taldeak hainbat bilera egin ditu Araba eta Bizkaiko foru-aldundiekin, udalekin eta administrazio-batzarrekin. Nerbioiko Parke Linealerako proposamenetako asko, eta haren ikuspegi estrategikoa bera ere, bilera horien emaitza dira.



I.2. MAILAZ GORAGOKO PLANGINTZAREKIKO KOHERENTZIA

I.2.1. Lurralde-plangintzarekiko

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak

Aiarako Eremu Funtzionala ezaugarritzeko zuzeneko erreferentzietan ez dute Nerbioiko Parke Linealaren ikusmoldean hain zuzenean sakontzen. Batez ere, ingurune fisikoa antolatzeko proposamenetan oinarritzen dira, Gibijo mendilerroa, Maruako labarrak, Salbada mendilerroko labarrak eta Laudioko artadiak babesteko proposamenetan, hain zuzen.

Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Plan Bereziaren esparruaren barruan, Urduñako diapiroari lotutako urmael bat dago. B4B1 Arbietoko urmaela da. Babes bereziko zonatzat balioetsi da. Bertan, beti edo aldizka istildutako zonetan baimendutako erabilera bakarra publiko estentsiboa da.

Laudioko udalerrian, EA12 Olarteko presa dago. LAPean hezegune artifizial gisa ere dago sartuta, urtegia izateagatik.

Bi elementu horiek koherentziaz antolatzen dira Plan Bereziaren dokumentu honetan.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Ingurumen-osagaiari dagokionez, ondoko hauek daude zehaztuta:

- Lehentasunezko natura-intereseko zonak, ezker aldean, Urduña eta Saratxo artean, eta eskuinaldean, Luiaondo eta Amurrio artean, kokatutakoak.
- Higatu eta irristatzeko arriskuko eta/edo akuiferoen zaurgarritasuneko zonak, Saratxoko hirigunearen ezker aldean.
- Lehengoratzeko beharra duten ertzak, Nerbioi osoan, aurreko kasuetan izan ezik.

Osagai hidraulikoarekin lotutako alderdietan, urpetzeetarako, ibaiaren erantzun hidraulikoa 10, 100 eta 500 urteko itzulaldikoa dela kontuan hartu da. Gaur egun datu zehatzagoak ditugu, Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren berrikuspenean jasotakoak. Hain zuzen, datu horiek hartu dira kontuan planean.

Hirigintza-osagaiak ibaiertzen erabilerak finkatzen ditu. Honako hauek bereizten ditu: landa-erabilerak, garatutako esparruak, hiri-garapen berriak eta azpiegiturek eragindako ibaiertzak. Nerbioiko Parke Linealak ez du LAPean ezarritako gutxienezko tarteei buruzko zehaztapenen aurkakoa izango den eraikuntza-garapenik aurreikusten.

Natura 2000 Sarean barne hartzeko proposatutako eremuak

Plan Bereziaren jardun-esparruan bilduko diren udalerriek osatutako lurraldean, bi zona hauek proposatu dira **Natura 2000 Sarean** barne hartzeko:

- **GKL ES2110004 – Arkamo-Gibijo-Arrastaria:** Artadien eta txilardien formazioak, eragin mediterraneo handiko zona atlantikoko klima oromediterraneoari lotutakoak. Fauna berezizat hartzen da. Badira urlehortarrak, hala nola, baso-igel jauzkaria eta gailurretako uhandrea; ugaztun kiropteroak, besteak beste, soro-muxarra, lepahoria, basakatua, orkatza eta oreina; eta hegaztiak ere, esaterako, belatz handia, arrano beltza, arrano txikia, arrano sugezalea, sai arrea, sai zuria, belatxinga mokogorria, belatxinga mokohoria, etab. Lehentasunezko hartutako habitatak hauek dira: larre lehor erdi-naturalak eta substratu karedun gaineko sastraka-faziesak, gramineoen eta urteroko landareen zona azpiestepikoak, mendizonetako substratu silizeoen gaineko belar-formazioak *Nardus* sp.rekin, eta *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko baso alubialak.
- **HBZB ES0000244 – Salvada mendilerroa:** Bertan bizi eta habia egiten duen hegazti-fauna Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoko interesgarrietakoa da. Salvada mendilerroko kareharrizko labarrak habiak egiteko gune aproposak bilakatu dira labar- eta mendi-espezieentzat, hots: sai arrea, belatz handia, arrano beltza, sai zuria eta belatxinga mokogorria. Inguru horretan arrano sugezalea eta zata arrunta ere bizi dira.

Arabako Errepideen Plan Integrala

Errepideei dagokienez, AEPI Arabako Errepideen Plan Integralean jasotako aurreikuspenak aztertu dira, Delikako ur-jauziko sorburutik, Laudiotik ibaian beheraino Nerbioi ibaiak osatzen duen korridoreari dagokion zonarako.

Datozen urteetan gauzatu beharreko bost jardun aurreikusi dira. Hona hemen aipatutako jardunak:

- A-4906 errepidea egokitzea (auzo-sarea hobetzea). Galtzadaren zabalera eta arekak egokitzean, eta egungo trazadura hobetzean datza.
- A-625 errepidea egokitzea, Saratxotik Bizkaiko probintzia-mugaraino. Galtzadaren zabalera eta arekak egokitzean, eta egungo trazadura hobetzean datza. Bestalde, epe

luzera errepidea zabaldu ahal izateko prest utziko da. Hautabidezko trazaduren diseinuak daude.

- A-625 errepidea zabaltzea, Amurrioko ekialdean dagoen tartean. Amurrioko saihsbidea. Amurrioko ekialdeko saihsbidearen errepidea zabaltzean datza. Errepidea dagoeneko prest dago zabaldu ahal izateko.
- Markijanako loturako glorieta, A-3622 errepidea. Gurutzaguneko glorieta egitea.
- A-625 errepidea zabaltzea, Amurrio eta Laudio artean. Errepidea zabaltzean datza. Errepidea dagoeneko prest dago zabaldu ahal izateko.



I.2.2 Udalerrien plangintza orokorrarekiko

Plan bereziaren maila udalerrien plangintza orokorraren azpitik dago. Ildo horretatik, plan bereziak ez du lurzorurik sailkatzen, ez eta haren kalifikazio orokorrik egiten.

Hortaz, plan berezia plangintza-figura ahula da, lurralde-eskala baino ahulagoa ere. Baina horrek badu onurarik ere: udal-planak osatzera eta haiei laguntzera behartzen du.

Nerbioi ibaiaren ubidearen inguruan espazio libreen sistemak pixkanaka lortzeko helburuarekin, udal-mailako estrategiei eta kudeaketari laguntzeko printzipio hori nabaria da Nerbioiko Parke Linealerako Plan Berezia jasotako tartetean.

Udal-plangintzan urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruetan garatzen da Plan Berezia. Baina Plan Bereziak, era berean, Nerbioi ibaiaren tarte luze bati buruzko azterketa bateratua egiten du, Nerbioiko Parke Linealaren ikusmolde zabalarekin bat datorrena. Horrek ikuspegi orokorra ematen du jarduteko aukeren inguruan, bai eta asmo handiko hirigintza-proposamenak egiteko ahalmen handia ere. Baina plangintza orokorrari eragiten dioten proposamenetarako, gomendioaren tonu zuhurra eta malgua erabiltzen da.

Idea horiek plangintza orokorra berrikusteko prozesuetan kontuan har daitezke, eta egokitu ere egin daitezke, Parke Lineala gauzatzea ekarriko duen egoeraren bat sortzen bada gerora, eta egoera horrek formulazio berriak egitea eskatzen badu. Izan ere, Plan Berezi honek epe luzerako logika ere kontuan hartu behar du.

I.2.3. Aiarako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Arloko Planarekiko

Aiarako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Zatiko Planaren memorian, puntu batzuetan, Plan Berezi honekin lotutako alderdiak deskribatzen dira.

Ingurune fisikoari eta ingurumen-kalitateari buruzko alderdien artean, aipatzekoak dira babes berezikotzat kalifikatutakoak, hots:

- Delikako haitzartea eta ur-jauzia: Esparru horretan ere barne hartuta daude Delikatik ibaian gora dagoen Nerbioiren ibilgua, haren ibaiertzak (ibilgu publikoaren muga-lerroarekiko 100 m-ko atzerapenarekin) eta Gibijo mendilerroaren adarrak, 500 m-ko kotatik aurrera, Nerbioi ibaiaren sorburuaren bi aldeetara.

- Laudioko ipar-mendebaldean kokatutako artadiak eta artelatz-basoak, klima beroagoko iraganaren aztarna gisa geratzen direnak, landaredi mediterraneoaren erakusgarri gisa.

LZParen ardatz teknopolitarraren ikusmoldean, Nerbioiko Parke Linealak eginkizun nagusia du. Modu zeharkakoagoan, lurraldearen sare berdeak, eta jolas- eta aisiazonetarako proposamenek ere zerikusia dute ikusmolde horretan.



Memoriaren 4.1 puntuan, honela deskribatzen da Nerbioiko Parke Lineala:

NERBIOIKO PARKE LINEALA

Nerbioi ibaia Ardatzaren argudio natural nagusia da eta bera da ardatza fisikoki posible egiten duena, garapenerako egokiak diren lur lau urriak kokatzen diren espazio oso horri jarraipena ematen dio-eta. Urte askotan, Nerbioi ibaia ur zikinak isurtzeko kanal bat eta arrisku-iturri bat besterik ez da izan, sarritan egiten baitzuen gainezka. Etorkezunari begira oso garrantzitsua da Ardatzeko paisaiaren eta natura-baliabideen egoera hobetzea. Funtsezko ekimena da bizitegi eta ekonomia garapen berrietarako espazio honen eragingarriak areagotzeko eta hiri-asantamendu nagusietako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Nerbioi ibaian zehar eremu funtzionaleko biztanleriaren ia % 90 bizi da. Hori dela-eta, ezinbestekoa da ingurune erakargarria eta

ingurumena zaintzen duena ziurtatzea, herritarren ongizatea bermatuko duena eta naturarekiko harremanen eguneroko eskariak asetzeko aukera emango duena, ibai-fatxada horretan hiri-erakargarritasuna hobetzeko argudio garrantzitsua duten guneetan.

Nerbioiko uren arazketa ezinbesteko baldintza da ibai-bazterrei lotutako Parke Lineal handi bat Ardatz Teknopolitarraren osagai nagusietako bat bezala garatu ahal izateko. Ardatzaren abantaila konparatibo handietako bat nabarmenduko duen korridore berdea bultzatu nahi da, natura beti hurbil eta esku-eskura duen garapen organiko eta erakargarriko esparruaren izaera azpimarratuko duena. Parke Lineala Nerbioi ibaia ibilbide osoan zehar Ardatzaren jarraitutasun ekologikoko elementu gisa finkatzera zuzendutako pieza da. Hazkunde-esparru berri honetan proposatzen diren kalitate handieneko erabilera berritzaileenak kokatzeko erreferentea izango den espazio guztiz erakargarria eratzea da asmoa.

Parkeak bere gain har ditzakeen funtzioak funtsezkoak dira proposatutako lurralde-eredurako. Bertako biztanleentzat erakargarriak diren aisia-espazioak eta naturarekiko harremanetakoak finkatzeko aukera ematen du, paisaia hobetuz eta Ardatzeko hirien arteko konexio-elementu biguna eskainiz. Funtsezko elementua da Nerbioiko haran antropizatuan zehar lurraldearen pertzepzioa hobetzeko, giro eta erabilera-aukera ugari eskaintzen baitu. Tipologia ugari har ditzake bere gain, kokalekuaren eta tarte bakoitzaren ezaugarri fisikoen arabera: tratamendu formalagoa, geometrikoa eta hiri-izaerakoa duten eremuak, ibiltarientzako eta txirrindularientzako bidezidorrak, atsedean, aisia eta kiroletarako guneak, ontzirelekuak, tratamendu naturalagoa duten esparruak, zuhaitziz, hezegunez eta kanaberadiz hornituak, belardiak eta mendi-hegaletako baso-eremuekin konektatzen diren bideak eta abar.

Bere mugaketa lurraren ezaugarri fisikoek zehazten dute neurri handi batean. Hala, berriro gertatzeko 10 urtetik beherako aldietan uholde-arrisku handiena duten eremuak hartzen ditu, bere diseinuan fluxu hidraulikoak kontrolatzen lagunduko duten erretentzioko urmaelak eta putzuak barne hartuz eta ingurune arras berezia eratuz, oso erakargarria aisia-espazio gisa eta inguru hauetatik aspaldi samar desagertutako animalia eta landare espezieentzako habitat natural gisa. Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atsedean-eremutat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio.

LZParen Araudian, Nerbioiko Parke Linealerako zehaztapenak 25. artikuluan ezartzen dira. Honela dio, hitzez hitz:

25. artikulua. Nerbioiko Parke Lineala

Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atsedean-eremutat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio.

1. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da:

a. NPL-1, eremu funtzionalaren mugatik, Arakaldon, Luiaondoko herrigunearen iparraldeko hiri-lurzoruaren mugaraino.

b. NPL-2, Luiaondoko hiri-lurzoruaren hegoaldeko mugatik Amurrioko udalerrian dagoen industria-lurzoruaren iparraldeko mugaraino.

c. NPL-3, Amurrioko hegoaldean dauden industria-lurzoruen mugaren eta Urduñako herrigunearen iparraldeko lurzoru urbanizagarrien artean garatzeko.

d. NPL-4, Urduñako hiri-lurzoruen hegoaldeko mugatik eremu funtzionalaren mugaraino, Amurrion.

2. Esparru hori baso-parke gisa sortuko da, eta funtsean ur-bazterreko landarediko espezieen zuhaitziaz, bide bigunez eta erabilera publiko estentsiboarekin bat datozen ezaugarriez osatuko da. Hirigune nagusietatik hurbilen dauden tarteetan (NPL-1, NPL-3 eta NPL-4) hiri-parkeen berezko aisialdi eta kirolerako ekipamenduak gaineratu ahal izango dira, baita erabilera publiko intentsiborako egokiak diren aisialdi eta atsedenerako eremuak ere.

3. Nolanahi ere den, ingurumen eta aisialdiko ekipamendu hori garatzeko ekintzek l. eranskinen zerrendatutako tarteetan dauden landaredi-elementu interesgarriak errespetatu beharko dituzte eta eranskin horretan Nerbioi ibairako adierazitako inguru narriatuak bere onera ekarriko dituzte.



Puntu hori irakurrita ondoriozta daitekeenez, Aiarako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Zatiko Planaren dokumentuak biltzen ditu Plan Bereziaren proposamenak, eta plan horretan adierazitako Parke Linealaren ikusmoldea ere jasotzen du.

I.3. NERBIOIKO PARKE LINEALAREN ETA PLAN BEREZIAREN ESPARRUAK

I.3.1. Nerbioiko Parke Linealaren esparruak

Nerbioiko Parke Lineala, 33 kilometroko ibilbideaz, Nerbioi ibaiaren goiko tartearen albotik igarotzen da, Delikako ur-jauzitik hasita Altube ibaiarekin elkartu arte. Udalaz gaindiko ekipamendu berezizat pentsatuta dago, udal-eskalako ohiko parkeen eta berdeguneen tamaina zabal gainditzen baitu.

Errepidez eta, batez ere, trenbidez iristerraza denez (aldiriko zerbitzu eraginkorrak ditu), Nerbioiko Parke Lineala lurralde-ekipamendu gisa txertatzen da, Bilbaoko ingurune metropolitarran ere.

Gainera, Nerbioiko Parke Lineala, Lurraldearen Zatiko Planean Ardatz Teknopolitarraren elementutzat hartzen denez, Aiarako Eremu Funtzionala egituratzen eta batzen laguntzen du.

Nerbioiko Parke Linealaren esparruak Plan Bereziarenak baino zabalagoak dira. Gainera, muga zehaztugabeagoak ditu. Irekiak dira. Eskualdeko udalerrietako berdeguneen eta aisia-espazioen beste sistema batzuekin bat egiten dute. LAAetan eta LZPan jasotako lurralderako sargunearen kontzeptuan sakontzen da. Muga horiek, era berean, gerora erraz alda daitezke.

I.3.2. Plan Bereziaren esparruak

Plan Bereziaren berezko esparrua mugatuagoa da. Hirigintza-planaren figurak, duen legezko estalduraren bidez, ondoren kudeaketa jakin bat ahalbidetzen dueneko, edota ordenantza-zonen bitartez litezkeen erabilerak arautzen ditueneko lurraldeak besterik ez ditu biltzen Plan Bereziak. Hortaz, Nerbioiko Parke Lineala gauzatzeko prozesuan Plan Bereziaren figurak balio jakin bat gaineratzen dueneko esparruak biltzen ditu.

Plan Bereziaren esparruan espazioak barne hartzeko irizpideak:

- Ageriko Jabari Publiko Hidraulikoa eta haren zortasunak, Parke Linealari jarraitutasuna emateko funtsezko elementu gisa, eta egun urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruetan ibaiaren meandro-formako trazadura bera babesteko osagai gisa ere.
- Urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruetan, hiriguneetatik ibaian gora dauden urpetze-lautada jakin batzuk, Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala eguneratzeko 2004an egindako lanetan jasotakoak.



- Saneamendu integraleko hodi biltzailearen azpiegiturak, hondakin-uren araztegiak eta bizikleta-bidea edo *bidegorria* gauzatzeko beharrezko espazioen zerrendak.
- Parke Linealaren aukerako eremuak, Parke Linealaren jabari publikoko espazioen sisteman barne hartzen direnak.

- Ingurumen-interesa duten lurzoru urbanizaezineko esparru jakin batzuk, egun berariazko babes-figurarik ez dutenak.
- Dauden erabilerak arautzea komenigarria duten lurzoru urbanizaezineko esparru jakin batzuk.
- Landareberritzea eta apaindura-tratamenduak komenigarriak dituzten ibaiertzeko zerrendak eta inguruak.
- Uraldiak laminatzeko hobekuntza hidrologikoko obrak onar ditzaketen espazioak.
- Parke Linealaren azpiegitura egituratzaileen arteko bestelako hondar-espazioak, hala nola, trenbidea edo A-625 errepidea.

Udal-eskalan, Amurrio eta Laudioko plangintza orokorrek Nerbio ibaiaren ibilguan zehar eta hurbileko inguruetan ibai-parkeak eta espazio libreak egitea aurreikusten dute. Nerbioiko Parke Lineala eta Plan Berezian proposatutako mugaketa modu osagarrian pentsatuta daude, aipatutako udal-helburuak gauzatzen aurrera egiteko.

I.4. NERBIOIKO PARKE LINEALAREN KONTZEPTUZKO IRIZPIDEAK

I.4.1. Parke Lineala hirigintza hutsekoa baino ikuspegi zabalagotik hartzea

Nerbioiko Parke linealaren ideia hirigintza hutsekoa baino ikuspegi eta gogoeta zabalagotik sortua da. Lurralde-antolamendurako hautabideak aztertzeke dokumentuak, 2004ko maiatzean erakutsi eta eztabaidatutakoak, Parke Linealaren osotasunaren ikuspegi estrategikoagoa eta osatuagoa du.

Plan Bereziaren dokumentu honetan, batik bat, hirigintza-planaren figurak berori gauzatzeko funtsezko balioa ematen dueneko proposamenak deskribatzen dira. Baina, era berean, gomendio edo testuinguruko informazio gisa, Nerbioiko Parke Linealaren ikusmolde bateratuago hori osatzen duten gainerako proposamenak biltzen dira.

Hortaz, Nerbioiko Parke Linealerako Plan Berezia, berezko zehaztapenei dagokienez, plan mugatua izango da. Antolatu ez ezik, neurri berean, gomendioak emango ditu. Administrazio guztien lankidetzan, udalerrien plangintza orokorrean eta garapeneoan, eta horiek gerora berrikusteko prozesuetan ustea izango du, Parke Linealerako proposamen guztiak gauzatzeko helburuarekin.

Horregatik, Plan Bereziak zehaztapenetan zuhurra izan behar du, beraren inguruan interpretazio malguak egin ahal izateko.

I.4.2. Epeak behar bezala finkatzea

Nerbioiko Parke Linealerako proposamenak itxuratzeko funtsezko alderdietakoa epe eta fase guztiak behar bezala kateatzea da. Erreferentzia gisa ditugun parkeetako edozeinetan, haien lehen ikusmoldeaz gain, gehien antzematen den gauza haiek kontserbatu eta hobetzeko etengabeko lana da. Kasu berezietan, lan horrek urte asko eta asko eskatzen ditu.

Nerbioiko Parke Linealerako, zalantzarik gabe, ehun urteko ikuspegia izan behar dugu. Epe luzea da, baina epe labur eta ertainerako beste ikuspegi bideragarriarekin osatzen da.

Parke Linealak ardatz egituratzailearen ideari jarraitzen dio. Ardatz hori epe laburrean eta ertainean gauzatu behar da, ardatz egituratzaileari lotuta egongo diren ikusmolde malguagoako aukerako eremuekin. Horiek gauzatzeko behar izango dira eperik luzeenak, agian.



Ardatz egituratzailearen ideia eta hura azkar gauzatzearen garrantzia hobeto ulertzeko, pentsatu behar da ardatz horretatik igaroko den bidea lortzen badugu, egun Nerbioi ibaiak dituen balioak bilduta, parkea dagoeneko gauzatu egongo dela.

I.4.3. Administrazioaren arlokako jardunbidea gainditzea, parkea gauzatzeko ekonomia garrantzitsua sortzeko aukera gisa

Nerbioiko Parke Linealerako proposamenak, eta Plan Berezi honetan bildutakoak ere, beti mugatuak diren baliabide publikoen egoera kontuan hartuta egin dira.

Epe laburragoan proposamenak gauzatzeko aukera dagoeneko programatutako azpiegiturak eginez gero etorriko da, zehazki honako hauek: Nerbio ibaia osorik saneatzeko hodi biltzailea, haren araztegiak eta A-625 errepiderako programatutako hobekuntzak.

Saneamenduko hodi biltzailea azpiegitura lineala da, Saratxoko hirigunetik Laudioraino egin beharrekoa, Luiaondo eta Gardea artean eten txiki batekin. Gainera, oso epe laburrerako azpiegitura da. Ubideko zortasun soilaz gauzatu beharrean, bizikleta-bide baten urbanizazioarekin akabera ematea lortzen badugu (aurrekontua zertxobait handiagoa besterik ez litzateke izango), ekonomia handia lortuko genuke, egungo pasealekuekin batera, Nerbioiko Parke Lineala egituratuko duen pasealekuari esker.

Ildo horretatik, Saratxon A-625 saihebidetarako egiteak ere aukerak emango lituzke, bai eta Amurrioko industria-poligonoetarako sarbidea gauzatzeko ere.

Inbertitzeko ahalmena duten administrazioen ohiko ikuspegia eta arlokako jardunbideak gainditzea da, hain zuzen ere, Plan Berezian arreta handienaz aztertzen den aupada.

Azpiegiturarako aurreikusitako inbertsio guztien ikuspegi bateratzaile hori, eta kostu zertxobait txikiagoarekin parkea gauzatzeko erraztasuna ere, plan honen ekarpen nagusietakoa da.

Gainera, Plan Bereziak legezko estaldura ematen du. Estaldura hori, arlokako politikak gauzatzeko ezinbestekoa ez bada ere, egokia eta komenigarria da eta, horrez gain, dagozkion proiektuen prestaketa errazten du.

I.4.4. Parke Linealaren ikusmoldea garapen iraunkorraren printzipioetan oinarritzea

Ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen iraunkortasunaren inguruko azterketatik abiatuta, Plan Bereziaren proposamenetan hobekuntza ekologikoarekin, automobilarekiko hautabidezko mugikortasunarekin eta ingurunearen hiri-erakargarritasuna areagotzearekin lotutako ezaugarriak nabarmentzen dira.

Proposamen garrantzitsuenak ibaiko uren kalitate ekologikoa lehengoratzera daude bideratuta. Ibaitik gertu dauden ingurumen-intereseko eremuak, aurretik bestelako babes-figurarik ez dutenak, babesten dituzte. Tradizioz ibaiari lotutako flora eta fauna babesten dituzte.



Nerbioiko Parke Linealaren ardatz egituratzaileak mugikortasun iraunkorra bultzatuko du, automobilarekiko hautabidezkoa, eta oinezko, bizikletazko eta trenezko joan-etorriak sustatuko ditu. Etxetik lanerako eguneroko joan-etorrietarako, trenbidez-erbitzua bizikletarekin konbinatuta erabili ahal izango da. Izan ere, bizikleta garraiobide eraginkortzat hartzen da inolako zalantzarik gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko hiri-ingurune ugariaren ahulezietako bat aisiarako eta denbora librerako duten hiri-erakargarritasun eskasa da. Eskasia horrek, familien motorizazio-maila handiarekin batera, bertakoak lehiakorragoak eta erakargarriagoak diren hurbileko inguru eta hirietara lekualdatzeko arriskua dakar berekin. Estatistika bidez egiaztatutako arriskua da hori. Parke Lineala, era berean, elkartzen dituen hirigune eta auzo txiki guztien hiri-erakargarritasuna areagotzeko pentsatua da.

I.4.5. Nerbioi ibaia eta Parke Lineala eguneroko erabilerarako sustatzea

Udaletan eta administrazio-batzarretan egindako kontsulta-saioretatik ateratako ondorio argietakoa da ekipamendu sinplea diseinatu behar dela, ahalik eta lagun gehienak egunero erabili eta gozatuko dutena. Elkarrikeria guztietan, pasealekuaren ideia atera zen, nahi hori laburbiltzen duen adierazpen gisa.

Beraz, asmoa ez da izan turismoko edo gaikako gunere bereziki erakargarria sortzera bideratutako elementua diseinatzea (horretarako bidea emango duen elementurik ere ez dugu), baizik eta egunero paseatzeko, lanerako joan-etorriak egiteko edo asteburuan familian irtenaldiak egiteko erabiliko den parkea egitea baizik.

I.4.6. Nerbioiko Parke Linealaren eta Plan Bereziaren ikusmolde malgua eta partaidetzazkoa izatea

Epeak finkatzeko irizpidea aipatu dugunean, aukerako eremuetarako epe luzeak eta oso luzeak ere aurreikusi ditugu.

Parke Linealaren eredua eta Plan Bereziaren zehaztapenak, hau da, ardatz egituratzailea gauzatzekoak, zehatzagoak izango dira epe labur eta ertainerako.

Epe luzeetarako, proposamenek malguagoak izan behar dute nahitaez.

Etorkizunean berez sortzen diren aukerak, proiektuari eduki koherenteak emango dizkietenak (Plan Bereziaren jasotakoarekin hitzez hitz bat ez badatoz ere), aprobetxatu

egin beharko dira. Aukera horiek baliatu ahal izateko, Nerbioiko Parke Linealaren kudeatzaileek bizkor jokatu beharko dute.

Plan Bereziaren zehaztapen jakin batzuk gauzatu ahal izateko, askotan beharrezkoa izango da azpiegitura-proiektu konplexuak prestatzea, saneamendu integraleko hodi biltzailearena eta HUArena, esaterako. Proiektatu beharreko konponbide teknikoak bideragarritasun teknikoak berak Plan Berezian horretarako jasotako korridoreak zertxobait aldatu behar izatea eska dezake. Horrek ez du esan nahi plana betetzen ez denik. Planaren fase horretan, azpiegitura horiek trazatzeari dagokionez ziurtasun osoz asmatzeko behar adina zehaztasunik ez dugu. Horregatik, Plan Berezia prestatzeko garaian, zehaztapenetan zuhurtziaz eta haren kudeaketan malgutasunez jokatzeko irizpidea nagusitu da.



I.4.7. Ekintzarako plana prestatzea

Nerbioiko Parke Lineala gauzatzeko, Administrazioak ekinez jardun behar du datozen urteetan. Halako parkea ez da berez sortzen.

Plan Berezi hau ekintzarako tresnatzat diseinatu da, eta ez hainbeste aurretik dagoen balio handiko zerbait babesteko. Plan Berezi honek, era berean, Parke Lineala sortzeko proiektu zuzendariaren eginkizuna betetzen du.

Parkea egiteko tresnaren irizpide hori Plan Bereziaren funtsezko estiloa bilakatu da, eta bera osatzen duten dokumentuetako bakoitzaren edukietan islatzen da.

I.5. NERBIOIKO PARKE LINEALERAKO PLAN BEREZIAREN HELBURUAK

I.5.1. Nerbioi ibaiaren segurtasuna areagotzea, haren meandro-formako trazadura eta urpetze-lautadak babestuta

Plan Bereziaren aurreko faseetan jasotzen denez, Nerbioi ibaian izandako uholdeen ondoriozko arriskuak oso barneratuta daude bertakoen eta administrazio arduradunen oroimenean.

Nerbioiko Parke Linealean, ibaiaren oso tarte osatua aztertzen da. Hala, tarte laburretarako konponbideak aztertzeko gertatu ohi diren testuingururik ezarekin lotutako arazoak gainditzen dira. Izan ere, ibaian gora, zatiko konponbideek, hala nola, gehiegizko mozketek, ibaiertzetako lurren betelanez edo gaizki dimentsionatutako bideratzeek gerora arazoak larriagotzen dituzte ibaian behera.

Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren duela gutxi aztertutako datuetan oinarrituta, Plan Berezian, ibaiaren meandro-formako trazadura, eta ibilgu zaharrak jabari publikorako berreskuratzen direneko esparruak babestea aurreikusi da, energia xahutzea eta uraldiak laminatzea barne dela. Dagokion ordenantzaren bidez (OR-LA), ibaiaren egungo urpetze-lautadak babestea ere aurreikusi da.

Plan Bereziak udalei gomendatzen die plangintza orokorra berrikusteko eta lurzoru berriak sailkatzeko prozesuetan, ahal den neurrian, urpetze-lautadak errespetatu eta, behinik behin, honako irizpide hauek bete ditzaten:

- Itzulaldiko 500 eta 100 urteko uraldi-lerroen artean dauden esparruetarako: funtsezko ekipamendu publikorik ez jartzea, eta aprobetxamenduak 500 urteko itzulaldirako urpetze-arriskurik gabeko kotan kokatzea (hori xehetasunezko azterlan hidraulikoan justifikatuko da).
- Itzulaldiko 100 eta 10 urteko uraldi-lerroen artean dauden esparruetarako: ez dira egokitzat jotzen bizitegi, merkataritza edo industriako erabilerak barne

hartzeko; eta eremu horiek urpetzeko arriskua murriztera soilik zuzendutako bideratzeak egitea ere ez da onargarritzat hartzen.

- Itzulaldiko 10 urteko uraldi-lerroaren barruan dauden esparruetarako: ez dira egokitzat jotzen ibaiaren ekosistemari eta haren ahalmen hidraulikoari lotutako inolako erabileratarako.

I.5.2. Hodi biltzailea eta dagozkion hondakin-uren araztegiak, Nerbio ibaiaren goialdea osorik saneatzeko

Nerbioi ibaiak uda-garaian emari-eskasia nabarmena du. Horrez gain, uren kalitatea ere eskasa da goi-ibarretik bertatik hasita, Delikako hobiko isuriak jasotzen baititu.

Arroa osorik saneatzea da ibaia erabiltzeko, eta hari lotutako flora eta fauna lehengoratzeko eman beharreko lehen urratsa. Gainera, garrantzi handiko esku-hartze publikoa da.

Plan Berezian, hodi biltzailerako ubide-zortasunak ezartzea, hodi biltzailearekin eta pasealekuarekin bat datozen korridoreak desjabetzea eta titulartasun pribatuko espazioetan kokatzen diren araztegiak desjabetzea aurreikusi da.

Arloko administrazioen eskema zuzendariak Delikaren saneamendu autonomoa eta hiru araztegi aurreikusi dituzte. Araztegi horiek, Urduñan, Markijanan eta Laudioko Basurben kokatzekoak dira.

Urduñan, Amurrion eta Laudion badira zati batean erabil daitezkeen saneamendu-sistemak. Gainerako tartekak eraiki beharko dira.



I.5.3. Parkea bere osotasunean egituratuko duen bizikleta-pasealekua

Parke Lineala egituratzeko, errotiko ikuspegia izango duen pasealekua beharrezkoa da. Ibaiaren ibilbide osoan zehar jarraitutasuna izan behar du, Delikako ur-jauzitik Laudio-Orozkoko Anunzibai ingururaino.

Ildo horretatik ere, udalek ekinez kudeatzen dituzten egungo pasealekuen ibilbideak aprobetxatu ahal izango dira, hala nola: Delikako herri-basoko bideen multzoa, Urduñako ibai ondoko pasealekuak eta bidegorria, Amurrioko El Refor, eta Laudioko pasealekuak eta bidegorria.

Mugikortasun iraunkorra sustatu ahal izateko, ibilbide horiek trenbidearen geltoki eta geraleku guztiekin lotzea beharrezkoa da. Izan ere, aldiriko trenbide-zerbitzuak kasuren batean metroaren pareko kalitatea du, eta Nerbioiko Parke Linealean sartzeko eta harekin gozatzeko aukera benetan ikusgarriak ematen ditu. Bilbaotik trenez iritsi daiteke, Nerbioiko Parke Linealean asteburuan irtenaldia edo paseoa egiteko. Baina, gainera,

eskualdeko edozein industria-poligonotara egunero lanera joateko aukera ematen du, tren bizikletarekin konbinatuta.

Hirigintzarekiko proposamen osagarrietako bat Renfek, mugikortasunaren kudeatzaile denez, trenbidearen geltoki eta geralekuetan babestutako bizikleta publikoen flotak kudeatzea da.

I.5.4. Parke Linealari lotutako denetako espazioak sortzea, ibaitik hurbil dauden egungo jabari publikoak osatu eta zabaltzeko

Parke Linealaren esparruak ekipamendu garrantzitsuak biltzen ditu jadanik. Ekipamendu horiek, egiten duten zerbitzuaren berezko logikarekin batera, parkearen ibilbidea aberasten dute. Hona: Urduñako eta Amurrioko kirol-zonak, El Refor, Laudioko gastronomia-museoa.

Gainera, Amurrioko eta Laudioko plangintza orokorrak diseinu egokia du, sektoreak lurzoru urbanizagarri hornitzeari, eta ibaiaren ondoan berdeguneak eta parkeak sortzeari dagokionez. Ildo horretatik, bi udalak kudeaketa-lan etengabea ari dira egiten.

Plan Berezian, baliabide publikoak mugatuak direla eta horrek haren ekimenak ere mugatzen dituela kontuan izanda, Nerbioiko Parke Linealeko espazioen sisteman barne hartzeko sei jardun gehigarri proposatzen dira, nolakotasun eta eginkizun osagarriekin, hots:

- 2. tartea, Delikako ibarra: energia xahutuko duten, eta Nerbioi ibaiaren eta haren ibaiadarren uraldiak laminatuko dituzten urpetze-lautadak lehengoratzea; meandro-formako ibilgu zaharra lehengoratzea; akuiferoak betetzeko bidea emango duten hezeguneak, ibaiertzak basoberritzeko espezieen mintegi-zonak, Parke Lineala mantendu eta kontserbatzeko zona, eta aisia-zonak sortzea; eta hirigunerako sarbidean aparkalekua egitea.
- 5. tartea, Urduñako kirol-zona zabaltzea: turismoa sustatzeko udal-estrategiekin bat etorritik, eta bertako urpetze-lautadaren eginkizunari eutsiz.

- 6. tarte, espazio publiko berria Saratxon: Administrazio Batzordearen jabetzako lurrak baliatuz, hiriguneak egun ez duen espazio publiko bat sortzea, presaren eta ibaiaren ondoan.
- 13. tarte, espazio publiko berria Luiaondon: Urpetze-lautadaren eginkizunari eutsiz ere, ibai ondoko bide berriaren alboan garrantzizko espazio publikoa sortzea, hiriguneak ez baitu halakorik.
- 16. tarte, ibaiarekiko parke paralelo berria, Bitorika eta Areta auzoaren artean, plangintza orokorraren zenbait berrikuspenetan jasotako hiri-ereduarekin bat etorritik, eta haren hirigintza-kudeaketarako estrategiei jarraituz.



- 17. tarte, Altube ibaiaren eskuinaldea, Anunzibain: intereseko ondare eraikia lehengoratuta, Parke Linealean sartzeko ate gisa, A-68 autopistako ordainlekuaren ondoan, Laudion. Espazio libreen sistemara zuzenduta dagoen Audioko Udalaren jabetzako 25.000 m²-ko finkarekin osatzen da ekimena.

I.5.5. Interes historikoa duen ondare eraikiari balioa ematea

Errotak, zubiak, dorretxeak, burdinolak, presa txikiak, baserriak eta industria-instalazio berriagoak. Horiek ekimen pribatuaren bidez lehengoratu daitezke kasu askotan. Eraikuntza horiek ostalaritzarekin eta hirugarren sektorearekin lotutako jarduerak bil ditzakete, Parke Linealaz gozatzeko aukerak neurri handi batean zabaltzeko.

Elementu horiek ibilbideak markatu eta identifikatzen dituzte. Tokien oroitzapenak eta parkearen sekuentzia linealak aberasten dituzte.

Plan Berezi honen ustez, elementu horiek behar adina babestuta daude, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen arabera inbentarioan jasota daudelako, eta Plan Bereziarekin batera bideratutako katalogo batek ez du berme gehigarri garrantzitsurik ekartzen.

I.5.6. Pasabide-zortasunak gauzatzea

Parke Linealeko ibai-ibilguen ertzen tarte jakin batzuetarako, antolamendu- eta kudeaketa-planoetan irudikatutako xehetasunaren arabera, zenbait lur-zerrenda jabari publikoan barne hartzea proposatzen da; industriaren, nekazaritzaren edo aisia-baratzeen jardueraren ondorioz egun okupatuta eta hesituta dauden ibaiertzak iristerrazagoak egiteko.

Pasabide-zortasunak ezartzea gomendatzen da, ingurunerako estrategikoak diren garraioaren ekipamendu edo azpiegitura jakin batzuetarako sarbidea ziurtatzeko. Horien artean, besteak beste, Saratxoko industria-poligonoan dagoen Iñarratxuko geralekua edo Amurrioko El Refor-en zerbitzuak ditugu.

I.5.7. Lurzoru urbanizaezinean dauden erabilerak arautzea (OR-EA)

Horretarako, ordenantza bideragarriak eta malguak egin behar dira, egun antolamenduaren eta planaren arloan dagoen nolabaiteko hutsunea beteko dutenak.

I.5.8. Industria-kokaleku jakin batzuen irudia eta apaindura hobetzea (OR-AP)

Historian zehar, ibaiei bizkarra eman diegu. Eraikitako industria-kokalekuetan, atzeko fatxadak ibaira eman dute beti. Sarritan, jabari publiko hidraulikoa ere hartu da. Horrek oztopoak dakartza ibaiertzen ibilbidean.

Gure fabriken irudia gero eta garrantzitsuagoa da enpresa-etorkizunerako: produktu onak fabrikatu ez ezik, instalazioek itxura egokia izan behar dute; gero eta gehiago saltzen da irudiarekin. Irudi berri baten beharrari buruzko gogoeta hori udalerrietara eta, oro har, Euskal Herrira ere zabaldu daiteke.

Gainera, orokorrean, ez da inbertsio handirik egin behar horretarako. Batzuetan pintura- eta lorezaintza-lana besterik ez da egin behar.

Jabetzak apaindura-egoera egokian zaintzeko betebeharra aspaldikoa da; lehenengo hirigintza-legerietan dago jasota. Ordenantza berriak betebehara hori eguneratzen du.

I.5.9. Tarte jakin batzuetan ibaiertzak lorategiz hornitzea edo landareberritzea (OR-LB)

Nerbio ibaiaren tarte batzuetan, ibaiertzetako galeria-landaredia galdu da; oro har, bideratze berrien edo errepideak hobetzeko obren ondorioz. Ikuspegi guztietatik, oso gomendagarria da landaredia hori berritzea.

Hiri-inguruneetan, Nerbioi ibaia, itxura berri batekin, hiriguneetako paisaiarik ederrenetakoa bilaka daiteke. Hori lortzeko beharrezko tratamenduak sofistikatuagoak suerta daitezke. Lorategiz hornitzeaz ari gara, kontzeptu gisa.

Ordenantzak landare-tratamenduen eta ibilguen ahalmen hidraulikoaren arteko bateragarritasuna kontuan hartzen du.

I.5.10. Ibaiek hurbil dauden Natura 2000 Sarean barne hartu gabeko intereseko espazioak ingurumenaren aldetik babestea (OR-IN eta OR-FP)

Plan Bereziaren mugaketari dagokion hirigintza-esparrutik kanpo, baina Parke Linealaren kontzeptuzko esparruaren barruan, GKL ES 2110004 Garrantzi Komunitarioko Lekua eta HBZB ES 0000244 Hegaztiak Babesteko Zona Berezia daude, Natura 2000 Sarea

Europako Zuzentarauaren bidez inbentarioan jasotakoak. Leku horiek ez dira Plan Bereziaren esparruan sartu, araudien arteko kontraesanak saihesteko, eta koherentea delako mailaz goragoko araudira jotzea.

Ibilgutik gertuko inguruetan badira interes txikiagoko beste leku batzuk, baso autoktonoa dutenak eta hegazti harrapariak habia jartzen dutenak, hala nola, ibaiaren ezkerrean, Saratxoko igarobidetik. Espazio horiek Plan Bereziaren esparruan biltzen dira, dagokion araudiaren bidez babesteko.

Plan Berezian, haranaren ondoko azpiegiturek (trenbideak eta A-625 errepideak) faunarentzat sortzen duten oztopo-efektua arintzeko proposamenak egiten dira. Nerbio ibaira isurtzen duten ur-ibilguak komunikabide bikainak dira ugaztun txikien faunarentzat; eta, horregatik, babestu egiten dira.

Era berean, faunaren pasaguneek parkearen ibilbidea markatzen dute eta ugaztun horiek behatzeko gune aproposak dira. Izan ere, ugaztun txikiek, hegaztiak eta arrain-faunarekin batera, lorategi klasikoaren funtsezko elementuetakoa gaineratzen diote Parke Linealari, hots: animaliak.

1.5.1.1. Ibaiertzetan kokatutako hiriguneak erakargarriago egitea

Neurri batean edo bestean, Nerbioi ibaian zehar eta, horrenbestez, Parke Linealaren inguruan egituratutako hirigune guztiek, handiek nahiz txikiek, erakargarriago bilakatzeko eta ekipamendua hobetzeko aukerak dituzte, denbora librerako eta aisiarako azpiegituren bidez. Azpiegitura horiek errealismoz gauzatu behar dira, baina asmo handiekin ere.

Hiri-erakargarritasunik eza da azken urteotako arriskurik handienetakoa etorkizunari begira, Euskal Autonomi Erkidegoko barneko hiriguneentzat. Bertakoak ez joateko, erakargarritasun hori eskuratu behar da.



Hirien arteko lehia-egoeran, hiri-erakargarritasunari dagokionez, mailaz txikiagoak diren hiriek mailaz handiagoak direnek baino emaitza txarragoak dituzten egoeran; esaterako, Nerbioiko Parke Linealak dakartzan eraberritze-eragiketek garrantzi nabaria, eta maila goreneko gizarte- eta ekonomia-eragina dute.